MENDI LASTERKETA · AZPEITIA

ISFREN SKYRUNNINGEKO EUROPAKO TXAPELKETA · 2027

DOMUSA TEKNIK
MENDI LASTERKETA
40 MLK 65km

ARAUDIA · REGLAMENTO

Araudia 2027

Lehiaketa irekiak · Domusa Teknik KB, 40 MLK eta 15 MLK

KB
MAIATZAREN 6A, OSTEGUNA · BERTIKALA
2,95 km **791** m D+

40 MLK
MAIATZAREN 8A, LARUNBATA · ULTRA
65 km **4.000** m D+

15 MLK
MAIATZAREN 8A, LARUNBATA · LASTERKETA
26 km **1.400** m D+

Lagun Onak Mendi Bazkuna
Azpeitia · 1946tik

1. bertsioa
www.domusateknik40mlk.com

AURKIBIDEA · ÍNDICE

Aurkibidea

01	Xedapen orokorrak	2
02	Data, lekua eta probak	2
03	Ibilbideak	3
04	Parte hartzeko baldintzak	4
05	Izen-ematea	5
06	Dortsala, korrikalari-poltsa eta jantziak	6
07	Irteera	7
08	Derrigorrezko materiala	8
09	Kontrolak, ordu-mugak, anoa-guneak eta kanpoko laguntza	9
10	Segurtasuna eta osasun-laguntza	10
11	Erretiratzea eta ebakuazioa	11
12	Aldaketak, neutralizazioa, etetea eta bertan behera uztea	11
13	Kategoriak, sailkapenak eta sariak	12
14	Dopinaren aurkako kontrola	13
15	Arau-hausteak eta zigorrak	14
16	Erreklamazioak	15
17	Ingurumena	15
18	Baimen informatua, arriskuak eta erantzukizuna	16
19	Irudia, datu pertsonalak eta azken xedapenak	17

1 Xedapen orokorrak

1.1 Antolakuntza. Domusa Teknik 40 MLK, Domusa Teknik 15 MLK eta Domusa Teknik KB probak (aurrerantzean, «probak») Azpeitiko Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatzen ditu (aurrerantzean, «Antolakuntza»); Kirol Elkarteen Erregistroan 300. zenbakiarekin inskribatuta dago. Urola Erdiko turismo bulegoaren babesa eta Azpeitia, Errezil, Bidania-Goiatz eta Beizamako udalen laguntza dituzte.

1.2 Onarpena. Edozein probatan izena emateak esan nahi du araudi hau, haren eranskinak eta Antolakuntzak proba aurretik argitaratzen dituen jarraibideak irakurri, ulertu eta osorik onartu direla. Araudia ez ezagutzeak ez du salbuesten hura betetzetik.

1.3 Araudi aplikagarria. Lehiaketa irekiak araudi honen arabera arautzen dira. Bertan aurreikusten ez den orotan, Euskal Mendizale Federazioaren (EMF) Mendi Lasterketen Lehiaketa Araudia aplikatuko da, haren babespean egiten baitira probak, eta, horren ezean, Espainiako Mendi eta Eskalada Kirolen Federazioarena (FEDME). Araudi hau EMFrenarekin bat etorriz interpretatzen da, eta, edonola ere, indarreko legeriarekin bat etorriz.

> **1.4 ISFren Europako Txapelketa.** 2027an, International Skyrunning Federationek (ISF) Skyrunningeko Europako Txapelketa egingo du ekitaldiaren barruan, selekzio nazionalentzat soilik. Txapelketa ISFrekin adostutako ibilbideetan jokatuko da, eta ibilbide horiek araudi honetan deskribatutako hiru probenetatik desberdinak izan daitezke. Txapelketa ISFren arauen eta haren Lasterketa Epaimahaiaren erabakien arabera soilik arautzen da. Araudi hau ez zaio aplikatzen.

1.5 Interpretazioa. Araudi honetan aurreikusten ez den edozein egoera Lasterketa Zuzendaritzak ebatziko du.

2 Data, lekua eta probak

Proba guztiek Azpeitiko (Gipuzkoa) Plaza Nagusian dute irteera. Data edo ordutegi aldaketak www.domusateknik40mlk.com webgunean argitaratuko dira.

Proba	Distantzia	Desnibel +	Irteeraren data eta ordua	Gehieneko denbora
Domusa Teknik KB	2,95 km	791 m	2027ko maiatzaren 6a, osteguna · ordua zehazteke	Mugarik gabe
Domusa Teknik 40 MLK	65 km	4.000 m	2027ko maiatzaren 8a, larunbata · 8:00	12 h
Domusa Teknik 15 MLK	26 km	1.400 m	2027ko maiatzaren 8a, larunbata · 9:00	5 h


ISFren Europako Txapelketaren irteerek (1.4 artikulua) ordutegi propioak dituzte, eta lehiaketa irekienekin batera argitaratuko dira.

3 Ibilbideak

3.1 Ibilbide ofizialak. Ibilbideak Urola Erdiko mendietatik doaz, gehienbat lur pribatuetatik. Jabeekiko eta inguruarekiko errespetuagatik, behin betiko tracka proba aurreko egunetan argitaratuko da www.domusateknik40mlk.com webgunean; bertan zehazten dira, halaber, mapak, igarotze-puntuak eta anoa-guneak. Webguneko informazioa da erreferentzia ofiziala; ondorengo profilak orientagarriak dira, eta laranjaz adierazitako orduak igarotze-ordu mugak dira (9.2 artikulua).


40 MLK

65 km · 4.000 m D+ · Irteera eta helmuga Azpeitian




15 MLK

26 km · 1.400 m D+ · Irteera eta helmuga Azpeitian



KB · Kilometro Bertikala

2,95 km · 791 m D+ · Ezkerretegi – Xoxote (San Inazioren irudia)



3.2 KBren irteera neutralizatua. KBko parte-hartzaileak Azpeitiko Plaza Nagusian bilduko dira, eta taldean eta modu neutralizatuan joango dira Ezkerretegiko benetako irteerara, Antolakuntzako langileekin. Tarte neutralizatuan debekatuta dago aurrean doan arduraduna aurreratzea. Kronometraketa benetako irteeran hasten da.

3.3 Neurketa. Distantziak eta desnibelak ISFk onartutako neurketa-sistemaren arabera kalkulatu dira. Parte-hartzaileen GPS gailuen aldeek ez dute erreklamaziorako eskubiderik emango.

3.4 Seinaleztapena. Ibilbidea banderatxoekin, zintekin eta kartelekin seinaleztatuta egongo da, eta seinale gehiago jarriko dira bidegurutzeetan, ikuspen txarreko guneetan eta sigi-saga tarteetan. Derrigorrezkoa da markatutako ibilbidea jarraitzea, seinale batetik hurrengora igaroz. Trafikorako irekitako errepide edo pista zatietan, parte-hartzaileek zirkulazio-arauak eta Antolakuntzako langileen eta trafiko-agenteen argibideak errespetatuko dituzte.

4 Parte hartzeko baldintzak

4.1 Baldintzak. Parte hartzeko, ezinbestekoa da:

- Proba egunean 18 urte beteta izatea.
- Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak (WADA) edo dopinaren aurkako beste edozein erakunde ofizialek behin-behinean edo behin betiko zigortuta ez egotea.
- Izen-ematea behar bezala egitea.
- Halako mendi lasterketa bati aurre egiteko behar diren prestakuntza fisikoa, teknikoa eta psikologikoa, esperientzia eta materiala izatea.

Ez da derrigorrezkoa ziurtagiri medikoa aurkeztea. Antolakuntzak biziki gomendatzen du azterketa medikoa eta esfortzu-proba egitea, bai eta mendiko federazio-lizentzia indarrean izatea ere.

4.2 Onartzeko eskubidea. Datu faltsuak ematen dituena probetatik kanporatuko da, 15. artikuluaren arabera. Gainera, Antolakuntzak kanporatu ahal izango du, irteera baino lehen ere, bere jokabidearekin probaren garapena kaltetzen duena. Salbuespen gisa, aurreko baldintzaren bat betetzen ez duten parte-hartzaileak onartu ahal izango ditu, segurtasunari eragiten ez badio.

5 Izen-ematea

5.1 Prozedura. Lehiaketa irekietako izen-emateak www.kronoak.com webgunearen bidez soilik egiten dira.

Proba	Plaza irekiak	Esleipena	2026-12-31 arte	2027-1-1 / 2027-3-31
40 MLK	550	Zozketa	85 €	100 €
15 MLK	400 (200 emakume eta 200 gizon)	Zozketa	45 €	60 €
KB	100	Izena emateko ordenaren arabera (irekiera iragartzeke)	25 € (prezio bakarra)	

5.2 Aurre-izen ematea eta zozketa. 40 MLK eta 15 MLK proben aurre-izen ematea 2026ko azaroaren 3ko 18:00etatik azaroaren 9ko 23:59ra arte egongo da zabalik. Aurre-izena eman duen bakoitzari ausazko zenbaki bakar bat esleituko zaio. 2026ko azaroaren 13an, 18:30ean, Azpeitiko Udaletxean, udal ordezkarien gainbegiratuarekin, hiru zozketa publiko egingo dira (15 MLK emakumeak, 15 MLK gizonak eta 40 MLK orokorra), eta zuzenean emango dira. Zozketa bakoitzean, ateratako zenbakiak zehazten du lehen onartua, eta gainerakoak hurrenkera korrelatiboan esleitzen dira, amaierara iristean 1. zenbakira itzuliz. 15 MLK proban, genero batean betetzen ez diren plazak beste generora pasatzen dira.

5.3 Formalizazioa eta itxaron-zerrenda. Hautatuek mezu elektroniko bat jasoko dute, eta 72 ordu izango dituzte ordainketa egiteko. Hala egin ezean, izen-ematetik kanpo geratuko dira, eta plaza itxaron-zerrendako hurrengoari esleituko zaio; zerrendak zozketaren hurrenkera eta, 15 MLK proban, generoa errespetatzen ditu. Izena emandakoen zerrenda webgunean argitaratzen da, eta astearte guztietan eguneratzen da, aurreko asteko altekin eta bajekin.

5.4 Gordetako plazak. Antolakuntzak 75 plaza gordetzen ditu (40 MLK proban 50 eta 15 MLK proban 25), erakunde-konpromisoetarako, babesleentzat eta 40 MLK proban emakumeen parte-hartzea gutxienez % 10ekoa izan dadin bermatzeko.

5.5 Izen-ematean honako hauek sartzen dira: txipa duen dortsala, derrigorrezko kirol-asegurua, osasun-laguntza, anoa-gunea, korrikalari-poltsa eta oroigarrizko jantziak (6.4 artikulua), arropa-zaintza, dutxak, fisioterapia zerbitzua, ondorengo otordua, road book digitala eta Azpeitirako garraioa Iturburu eta Mandubiako erretiratze-puntuetatik.

5.6 Izaera pertsonala. Izen-ematea pertsonala eta besterenezina da. Ez da onartzen titularra edo proba aldatzerik, ezta hurrengo edizioetarako atzeratzerik ere.

5.7 Bajak eta itzulketak. Bajak izenemateak@domusateknik40mlk.com helbidera mezu elektroniko bat bidalita eskatuko dira, izen-ematearen erreferentzia adierazita. Honako zenbateko hauek itzuliko dira:

Baja eskatzeko data	40 MLK	15 MLK
2026ko abenduaren 31ra arte	**50 €**	**35 €**
2027ko urtarrilaren 1etik 31ra	**45 €**	
2027ko otsailaren 1etik 28ra	**40 €**	**25 €**
2027ko martxoaren 1etik apirilaren 14ra	**35 €**	
2027ko apirilaren 15etik aurrera	Itzulketarik ez	Itzulketarik ez

5.8 Ezeztatze-bermea. Izena ematean, 10 euroko berme bat kontrata daiteke. Bermeari esker, izen-emate osoa berreskuratu daiteke (bermearen zenbatekoa izan ezik), parte-hartzaileak irteera hartu ezin badu arrazoi justifikatu eta behar bezala egiaztatu batengatik: hala nola gaixotasuna, lesioa edo istripua, familia-arrazoi larriak edo antzeko larritasuneko beste batzuk. Eskaera dagokion egiaztagiriarekin (ziurtagiri medikoa edo ofiziala) aurkeztu beharko da, gertaera eragilea gertatu eta 10 egun naturaleko epean, eta Antolakuntzak ebatziko du.

Itzulketak ordaintzeko erabilitako bide beretik egingo dira. Deskalifikazioagatik edo kanporatzeagatik galdutako plazak ez du itzulketarako eskubiderik ematen.

6 Dortsala, korrikalari-poltsa eta jantziak

6.1 Jasotzea. 40 MLK eta 15 MLK proben dortsalak Azpeitiko Plaza Nagusian banatuko dira, 2027ko maiatzaren 7an, ostiralean, 17:30etik 20:00etara, eta proba egunean bertan, 6:00etatik 7:30era (15 MLK proban, 8:00etara arte). KBren dortsalak jasotzeko ordutegiak webgunean argitaratuko dira. Parte-hartzaile bakoitzak bere dortsala jasoko du, NANa, pasaportea edo baliokidea den agiria aurkeztuta. Beste pertsona batek korrikalari-poltsa jaso ahal izango du, titularraren agiriarekin, baina ez dortsala ez eskumuturrekoa.

6.2 Erabilera. Dortsala pertsonala eta besterenezina da, eta gorputzaren aurrealdean eraman behar da, beti ikusgai, arroparen gainean, tolestu edo moztu gabe. Kronometraketa-txipa du barnean, eta atzealdean, Antolakuntzaren larrialdi-telefonoa eta datu mediko garrantzitsuak idazteko tokia (odol-taldea, alergiak, gaixotasunak). Identifikazio-eskumuturrekoa derrigorrezkoa da Antolakuntzaren zerbitzuak erabiltzeko.

6.3 Jarraipen-gailuak. Antolakuntzak GPS gailu bat edo bigarren dortsal bat ematen badu, derrigorrezkoa izango da proba osoan erabiltzea.

6.4 Korrikalari-poltsa eta jantziak. Korrikalari-poltsa dortsalarekin batera ematen da, eta inguruko produktuak ditu. Oroigarrizko jantziak probaren arabera ematen dira:

Proba	Dortsalarekin	Helmugan
40 MLK	Inguruko produktuak, oroigarrizko kamiseta eta laguntzailearen akreditazioa	Finisher jantzia
15 MLK	Inguruko produktuak eta laguntzailearen akreditazioa	Oroigarrizko kamiseta
KB	Zehazteke	Zehazteke

> **2027ko berrikuntza.** Aurreko edizioetan ez bezala, 15 MLK proban kamiseta ez dago korrikalari-poltsan. 40 MLK probaren finisher jantzia eta 15 MLK probaren kamiseta gehieneko denboraren barruan helmugara iristen direnei bakarrik ematen zaizkie. Irteera hartuko ez duenak baja eman behar du (5.7 artikulua), haren plaza itxaron-zerrendara pasa dadin.

Helmugako jantziak egun berean jaso behar dira helmugako eremuan; ez da bidalketarik egingo.

7 Irteera

7.1 Deialdi-gela. Irteera bakoitzaren aurretik, parte-hartzaileak deialdi-gelan sartuko dira, eta han nortasuna eta derrigorrezko materiala egiaztatuko zaizkie. Irteera ez da atzeratuko kontrola gainditu ez duten parte-hartzaileengatik; kontrola gainditzen ez duenak ezin izango du irteera hartu.

Proba	Irekiera	Itxiera	Irteera
KB	Zehazteke	Zehazteke	Zehazteke (ikus 7.2)
40 MLK	7:15	7:45	8:00
15 MLK	8:30	Irteera aurretik	9:00

7.2 KBren irteerak. KBko lehiaketa irekiak denak batera ateratzen dira, txandaka, Europako Txapelketaren irteeren ondoren, hurrenkera honetan:

1. Irekia, gizonak.
2. Irekia, emakumeak.

Txanda bakoitza Plaza Nagusitik Ezkerretegira joango da, argitaratutako ordutegiaren arabera. Txanda irekietako batek 10 parte-hartzaile baino gutxiago baditu, bi txanda irekiak batera aterako dira, eta sailkapenak generoka bereizita mantenduko dira.

7.3 Irteerako hurrenkera. Antolakuntzak lehen ilarak gorde ahal izango dizkie berak izendatzen dituen elite-korrikalariei.

8 Derrigorrezko materiala

8.1 Derrigorrezko materiala. Parte-hartzaile bakoitzak proba osoan zehar eraman beharko du material hau, eta irteeran, ibilbideko edozein puntutan eta helmugan berrikusi ahal izango da:

Materiala	40 MLK	15 MLK
Mendiko oinetakoak (oinetako minimalistak edo alternatiboak onartzen dira, haien erabilera-baldintzekin)	●	●
Haize-babeseko jaka	●	●
Manta termikoa (gutxienez 1,20 × 2,10 m)	●	●
Edalontzia edo ur-ontzia	●	●
Telefono mugikorra, piztuta eta bateria nahikoarekin	●	●
Ur-erreserba (gutxienez litro 1)	●	—
Txanoa, bisera edo bandana	●	—

KBren derrigorrezko materiala aurrerago argitaratuko da.

8.2 Eguraldi txarragatiko derrigorrezko materiala. Euskalmeten iragarpenaren arabera, Antolakuntzak material hau ere eskatu ahal izango du. Behin betiko zerrenda webgunean eta sare sozialetan argitaratuko da proba aurreko egunetan.

Eguraldi txarrerako materiala	40 MLK	15 MLK
Txanodun jaka iragazgaitza	●	●
Galtza edo mallot luzea, belaunetik behera (edo mallot motza, hanka osoa estaltzen duten galtzerdiekin)	●	—
Bigarren geruza termikoa	●	—
Eskularruak	●	—

8.3 Debekatutako materiala. Debekatuta dago propultsiorako edozein laguntza mekaniko edo elektriko erabiltzea.

8.4 Makilak. Erabil daitezke, irteerako lehen 200 metroetan izan ezik; tarte horretan eskuan eramango dira, puntak babestuta eta beherantz. Makilekin irteten denak helmugaraino eraman beharko ditu: ezin dira ibilbideko inongo puntutan utzi edo jaso, ezta anoa-guneetan ere. Antolakuntzak dortsala markatuko du deialdi-gelan.

8.5 Parte-hartzailearen erantzukizuna. Derrigorrezko materiala gutxienekoa da. Mendia bat-batean alda daiteke, eta parte-hartzaile bakoitzak baloratu behar du bere segurtasunerako material gehigarririk behar duen. Probaren tracka duen GPS gailu bat eramatea gomendatzen da. Parte-hartzaileak daraman janaria bere dortsal-zenbakiarekin markatuta eraman beharko du.

9 Kontrolak, ordu-mugak, anoa-guneak eta kanpoko laguntza

9.1 Igarotze-kontrolak. Derrigorrezkoa da kontrol guztietatik igarotzea, eta txiparen bidez erregistratzen da. Kontrol finkoez gain, Antolakuntzak igarotze- edo material-kontrol mugikorrak jarri ahal izango ditu edozein puntutan. Parte-hartzaileek Antolakuntzako edozein kideren, komisarioren edo osasun-langileren argibideak bete behar dituzte.

9.2 Ordu-mugak. Ordu-mugaren barruan kontrol batetik igarotzen ez dena lasterketatik kanpo geratuko da: dortsala emango du, eta Antolakuntzak helmugara eramango du. Bere kabuz jarraitzea erabakitzen badu, bere erantzukizun osoz egingo du, eta deskalifikatu gisa agertuko da.

Proba	Puntua	Km	Ordu-muga (lasterketa-denbora)
40 MLK	Iturburu	19	11:30 (3 h 30)
40 MLK	Mandubia	33,9	14:00 (6 h)
40 MLK	Izarraizko atea (Ikasberri)	53,8	17:15 (9 h 15)
40 MLK	Helmuga	65	20:00 (12 h)
15 MLK	Izarraizko atea (Ikasberri)	14,7	11:45 (2 h 45)
15 MLK	Helmuga	26	14:00 (5 h)
KB	Helmuga	2,95	Mugarik gabe

Mugak segurtasun-arrazoiengatik aldatu ahal izango dira, eta parte-hartzaileei irteeran edo kontroletan jakinaraziko zaie.

9.3 Anoa-guneak. Antolakuntzak ez du edalontzirik emango. Janaria anoa-gunean bertan jango da, eta ura parte-hartzailearen ontzietan bete ahal izango da. Anoa-gune bakoitzak hondakin-edukiontziak ditu, eta derrigorrezkoa da haiek erabiltzea.

40 MLK	Km	Eskaintza
Komizulotza	8,7	Edaria
Iturburu	19	Edaria eta janaria
Maramendiko lepoa	27	Edaria
Mandubia	33,9	Edaria, janaria eta pasta
Pagotxeta	41,6	Edaria eta janaria
Larrume-txiki	48,3	Edaria
Izarraizko atea	53,8	Edaria eta janaria
Pistako langa	56,8	Edaria
Xoxoteko aterpea	59,7	Edaria eta janaria
Helmuga	65	Amaierakoa

15 MLK	Km	Eskaintza
Aizpuru Behekoa	4,6	Edaria
Larrume-txiki	8,9	Edaria
Izarraizko atea	14,7	Edaria eta janaria
Pistako langa	17,7	Edaria
Xoxoteko aterpea	20,7	Edaria eta janaria
Helmuga	26	Amaierakoa

KBn, helmugan egongo da anoa-gunea, edariarekin eta janariarekin.

9.4 Kanpoko laguntza. Anoa-gune hauetako eremu seinaleztatuetan bakarrik onartzen da: Iturburu, Mandubia eta Izarraizko atea (40 MLK) eta Izarraizko atea (15 MLK). KBn ez da kanpoko laguntzarik onartzen. Parte-hartzaile bakoitzak akreditatutako laguntzaile bakar baten laguntza jaso ahal izango du (akreditazioa korrikalari-poltsan dator), eta hark janaria, edaria eta arropa eman ahal izango dizkio; korrikalariak helmugaraino eramango du kentzen duen arropa. Debekatuta dago ibilbidean lagunduta joatea, erritmo-markatzaileen laguntza jasotzea edo animaliekin korrika egitea.

10 Segurtasuna eta osasun-laguntza

10.1 Dispositiboa. Antolakuntzak osasun- eta erreskate-dispositibo bat izango du, Gurutze Gorriaren laguntzarekin, ibilbideko puntu estrategikoetan eta helmugan banatuta, eta SOS Deiak (112) zerbitzuarekin koordinatuta. Bi korrikalari erratzek proba bakoitza itxiko dute, eta parte-hartzaile guztiak igaro direla egiaztatuko dute.

10.2 Mediku-taldearen agintea. Osasun-langileek edozein parte-hartzaileri kontrol medikoa egin ahal izango diote, probatik erretiratu, dortsala baliogabetuta, edo haren ebakuazioa edo ospitaleratzea agindu. Haien irizpideak beste edozeinen gainetik daude. Antolakuntza ez da haien argibideak ez betetzearen ondorioen erantzule.

10.3 Laguntzeko betebeharra. Parte-hartzaile orok laguntza behar duenari laguntzeko eta hurbilen dagoen kontrolean Antolakuntzari abisatzeko betebeharra du. Laguntza ez emateak deskalifikazioa dakar, legezko erantzukizunak alde batera utzi gabe.

10.4 Larrialdiak. Larrialdi kasuan, parte-hartzaileak dortsalean adierazitako Antolakuntzaren telefonora deituko du (604 146 803). Estaldurarik ez badago edo erantzunik jasotzen ez badu, 112ra deituko du, eta honako hauek adieraziko ditu: proban parte hartzen ari dela, gutxi gorabeherako kokapena, arazoa eta dortsal-zenbakia. Kontrako argibiderik ezean, markatutako ibilbidean geratuko da, aurkitzea errazteko. Ibilbidearen zati batera oinez bakarrik irits daiteke; beraz, erreskateak denbora har dezake.

10.5 Erreskateak. Antolakuntzaren dispositibotik kanpoko erreskateen gastuak probaren derrigorrezko kirol-aseguruaren bidez estaliko dira, edo, hala badagokio, parte-hartzailearen federazio-lizentziaren bidez, haien baldintzen arabera.

11 Erretiratzea eta ebakuazioa

11.1 Prozedura. Lesioa izan ezik, erretiratzea anoa-gune edo kontrol batean egingo da. Parte-hartzaileak arduradunari jakinaraziko dio, eta hark dortsala baliogabetuko du; parte-hartzaileak dortsala eta eskumuturrekoa gordeko ditu zerbitzuak erabiltzeko. Jakinarazi gabe erretiratzen denak bilaketa-operazio bat abiaraziko du alferrik, eta 15. artikuluaren arabera zigortuko da.

11.2 Erretiratze-puntuak.

- **40 MLK:** Iturburu (19. km), Mandubia (33,9. km) eta Izarraizko atea – Ikasberri (53,8. km).
- **15 MLK:** Izarraizko atea – Ikasberri (14,7. km).
- **KB:** helmuga (Xoxote), Antolakuntzak lagundutako jaitsierarekin.

Iturburun eta Mandubian autobusa egongo da Azpeitira itzultzeko. Lesionatuta dauden edo oinez ibili ezin duten parte-hartzaileak Antolakuntzak eramango ditu edozein puntutatik.

Puntu horietatik kanpo erretiratzen denak bere kabuz iritsi beharko du hurbilenera. Bere bitartekoekin itzultzen bada, hala ere jakinarazi beharko du. 4×4 ibilgailuekin bakarrik irits daitekeen puntuetan, arduradunak erabakiko du noiz egin lekualdatzea. Osasun-zentro batera eramanez gero, itzulera parte-hartzailearen kontura izango da.

12 Aldaketak, neutralizazioa, etetea eta bertan behera uztea

12.1 Antolakuntzaren ahalmenak. Segurtasun-, meteorologia- edo ezinbesteko arrazoiengatik, Antolakuntzak ibilbidea, ordutegiak eta ordu-mugak aldatu ahal izango ditu, irteera atzeratu, lasterketa neutralizatu edo eten. Erabakitzeko, Euskalmeten eta Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren abisuak hartuko dira kontuan.

12.2 Ibilbide alternatiboa. Proba bakoitzak eguraldi txarrerako ibilbide alternatibo bat du, eta ez da argitaratuko aktibatzen ez bada.

12.3 Lasterketan zehar. Proba martxan dagoela egoera aldatzen bada, Antolakuntzak parte-hartzaileak kontrol batean geldiarazi ahal izango ditu arriskua igaro arte, helmugara desbideratu edo lasterketa eten eta ebakuatu. Aldaketak kontroletan jakinaraziko dira.

12.4 Sailkapena etetea gertatuz gero. Proba hasi ondoren gelditzen bada, lasterketan dauden parte-hartzaile guztiak igaro ahal izan diren azken kontroleko hurrenkeraren eta denboraren arabera ezarriko da sailkapena.

12.5 Ezinbesteko kasua. Ezinbesteko kasutzat hartzen da Antolakuntzaren mendekoa ez den eta proba segurtasunez edo aurreikusitako baldintzetan egitea eragozten duen edozein egoera; besteak beste: eguraldi kaskarra edo Euskalmeten abisuak, suteak, harri-jausiak edo ibilbideko kalteak, osasun-alertak, agintarien erabakiak, baimenak kentzea edo larrialdi-zerbitzurik ez izatea.

12.6 Hasitako edo aldatutako proba. Ez da izen-ematearen zenbatekorik itzuliko proba:

- Ibilbide alternatibotik, ibilbidea laburtuta edo ordutegiak edo ordu-mugak aldatuta egiten bada.
- Irteera eman ondoren neutralizatu, desbideratu edo eteten bada.
- Egun berean atzeratzen bada.

> **12.7 Irteera baino lehen bertan behera uztea, ezinbesteko kasuagatik.** Edizio bakoitzaren antolaketa hilabete batzuk lehenago hasten da, eta gastu ia guztiak (aseguruak, baimenak, kronometraketa, seinaleztapena, materiala, anoa-guneak, korrikalari-poltsa eta oroigarrizko jantzia) aldez aurretik kontratatu eta ordaintzen dira, izen-emateetako diruarekin. Hori dela eta, proba ezinbesteko kasuagatik bertan behera uzten bada, ez da izen-ematearen zenbatekorik itzuliko.

Korrikalari-poltsa eta oroigarrizko jantziak izena emandakoen eskura jarriko dira, Antolakuntzak jakinarazten duen moduan. Ezeztatze-bermeak (5.8 artikulua) parte-hartzailearen baja estaltzen du, ez proba bertan behera uztea.

12.8 Antolakuntzari egotz dakiokeen bertan behera uztea. Proba Antolakuntzari soilik egotz dakizkiokeen arrazoiengatik bertan behera uzten bada, izen-ematearen zenbateko osoa itzuliko da, gehienez 30 eguneko epean.

12.9 Bestelako gastuak. Antolakuntzak ez ditu inola ere bere gain hartuko parte-hartzaileak izandako bidaia-, ostatu- edo bestelako gastuak.

13 Kategoriak, sailkapenak eta sariak

13.1 Sailkapenak. Emakumeen eta gizonen sailkapen bereiziak ezartzen dira:

- **Orokorra:** parte-hartzaile guztiak.
- **Eskualdekoa** (40 MLK): Azpeitian, Errezilen, Bidania-Goiatzen, Beizaman, Azkoitian, Zestoan, Zumaian edo Aizarnabalen erroldatuta daudenak.
- **Herrikoa** (proba guztiak): Azpeitian erroldatuta daudenak.

13.2 Sariak. Sariak berdinak dira emakumeen eta gizonen sailkapenean:

Postua	40 MLK	15 MLK
1.a	Txapela, garaikurra, 800 € eta tokiko produktuen saskia	Txapela, garaikurra, 300 € eta tokiko produktuen saskia
2.a	Garaikurra eta 650 €	Garaikurra eta 200 €
3.a	Garaikurra eta 500 €	Garaikurra eta 100 €
4.a	350 €	—
5.a	250 €	—
Probaren errekorra	300 €	100 €
Eskualdeko 1.a	Bi lagunentzako bazkaria edo afaria	—
Herriko 1.a	Bi lagunentzako bazkaria edo afaria	Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Indarreko errekorrak: 40 MLK, 5:53:33 (Borja Zubizarreta, 2023) eta 7:04:56 (Gemma Arenas, 2024); 15 MLK, 2:02:13 (Aritz Egea, 2024) eta 2:20:38 (Ikram Rharsalla, 2025).

KBren sariak aurrerago iragarriko dira.

13.3 Sarien baldintzak.

- Sariak ez dira metagarriak: sailkapen orokorrean saria jasotzen duenak ez du eskualdeko edo herriko sailkapenekoa jasoko.
- Diruzko sariak banku-transferentziaz ordainduko dira, dopinaren aurkako kontrolen emaitzak baieztatu ondoren, dagokion zerga-atxikipenarekin.
- Derrigorrezkoa da sari-banaketara joatea. Arrazoirik gabe ez joateak saria galtzea dakar.

13.4 Emaitzak. Denborak txiparen bidez erregistratzen dira, eta zuzenean jarraitu ahal izango dira. Behin-behineko sailkapenak webgunean argitaratuko dira, eta behin betikoak izango dira erreklamazioak ebatzi ondoren.

14 Dopinaren aurkako kontrola

Probak Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen arabera arautzen dira. Edozein parte-hartzaileri dopinaren aurkako kontrola egin ahal izango zaio proba aurretik, bitartean edo ondoren, Kirolean Dopinaren aurka Borrokatzeko Espainiako Batzordeak (CELAD) edo agintari eskudunak. Kontrol bati uko egitea emaitza positiboaren baliokidea da. Proba egunean dopinaren aurkako edozein erakundek zigortuta dagoen parte-hartzailea deskalifikatu egingo da, proban egindako kontrolak gainditu arren.

15 Arau-hausteak eta zigorrak

15.1 Aplikazioa. Komisarioek, osasun-langileek eta kontroletako arduradunek arau-hausteak egiaztatu ditzakete. Denbora-zigorrak berehala betetzen dira: parte-hartzaileak lasterketa geldiarazi behar du zigorrak irauten duen denboran, arau-haustea egiaztatzen den puntuan. Arau-haustea geroago egiaztatzen bada, denbora azken denborari gehitzen zaio. Honako taula hau aplikatuko da:

Arau-haustea	40 MLK eta 15 MLK	KB
Tranpa egitea: garraiobideak erabiltzea, dortsala partekatzea edo uztea, datu faltsuak ematea	**Deskalifikazioa eta betiko kanporatzea**	**Deskalifikazioa eta betiko kanporatzea**
Arazoetan dagoen pertsona bati ez laguntzea	**Deskalifikazioa**	**Deskalifikazioa**
Antolakuntzari edo beste parte-hartzaileei errespetua galtzea, baita laguntzaileek ere	**Deskalifikazioa**	**Deskalifikazioa**
Lasterketa Zuzendaritzari, komisario bati, kontroleko arduradun bati, mediku bati edo sorospen-langile bati ez obeditzea	**Deskalifikazioa**	**Deskalifikazioa**
Dopinaren aurkako kontrol bati uko egitea	Positiboaren berdina	Positiboaren berdina
Kontrol batetik ordu-muga igaro ondoren irtetea	**Deskalifikazioa**	**Deskalifikazioa**
Antolakuntzari jakinarazi gabe erretiratzea	**Deskalifikazioa eta hurrengo ediziotik kanporatzea**	**Deskalifikazioa eta hurrengo ediziotik kanporatzea**
Segurtasuneko derrigorrezko materiala ez eramatea: haize-babeskoa, manta termikoa, mugikorra edo ur-erreserba	**Deskalifikazioa**	**Deskalifikazioa**
Material-kontrol bati uko egitea	**Deskalifikazioa**	**Deskalifikazioa**
Beste derrigorrezko materialik ez eramatea	30 min	3 min
Ibilbidea moztea	Epaimahaiaren irizpidez, deskalifikazioraino	Epaimahaiaren irizpidez, deskalifikazioraino
Kontrol-puntu batetik ez igarotzea edo txipa ez eramatea	Epaimahaiaren irizpidez	Epaimahaiaren irizpidez
Hondakinak botatzea edo ingurumena kaltetzea, parte-hartzaileak edo haren laguntzaileek	30 min	3 min
Baimendutako eremuetatik kanpo edo pertsona bat baino gehiagoren laguntza jasotzea	30 min	**Deskalifikazioa**
Anoa-guneetako tolerantzia-eremuetatik kanpo lagunduta joatea	10 min	1 min
Irteeratik eraman gabeko makilak erabiltzea	30 min	3 min

Arau-haustea	40 MLK eta 15 MLK	KB
Lehen 200 m-etan makilak erabiltzea edo modu arriskutsuan eramatea	10 min	1 min
Mugikorra itzalita edo hegaldi-moduan izatea	10 min	1 min
Dortsala ikusgai ez, tolestuta edo moztuta eramatea	10 min, zuzendu beharko duen bitartean	1 min
Arrazoirik gabe sari-banaketara ez joatea	Saria galtzea	Saria galtzea

15.2 Deskalifikazioaren eta kanporatzearen arteko aldea. Deskalifikatutako parte-hartzailea ez da sailkapenean agertuko. Lasterketa Zuzendaritzak seguru jotzen badu, ibilbidea dortsalik gabe amaitu ahal izango du. Segurtasun-arrazoiengatik edo jokabide larriagatik kanporatutako parte-hartzaileak berehala utzi beharko du proba.

15.3 Aurreikusi gabeko arau-hausteak. Lasterketa Zuzendaritzak zigortuko ditu, haien larritasunaren arabera eta aurrekoen antzera.

16 Erreklamazioak

16.1 Aurkezpena. Erreklamazioak idatziz aurkeztuko dira helmugako idazkaritzan, Antolakuntzak emandako inprimakian, behin-behineko sailkapena argitaratu eta hurrengo 60 minutuen barruan. 50 euroko fidantza ordaindu beharko da eskudirutan, eta erreklamazioa onartzen bada itzuliko da. Eragindako parte-hartzaileak bakarrik egin dezake erreklamazioa.

16.2 Lehiaketa-epaimahaia. Federazioak izendatutako epaile-arbitroak, lasterketako zuzendariak eta, beharrezkoa denean, kronometraketako arduradunak osatzen dute. Ahal den guztietan sari-banaketaren aurretik ebatziko du, eta, edonola ere, gehienez 7 eguneko epean. Haren erabakiak irmoak dira.

16.3 Geroko erreklamazioak. Proba ondoren antzemandako kronometraketa-akatsak info@domusateknik40mlk.com helbidera jakinarazi ahal izango dira hurrengo 15 egun naturaletan, izena, dortsala, gertaerak eta frogak adierazita. Kronometraketa-erregistroak eta Antolakuntzaren irudi ofizialak bakarrik onartuko dira froga gisa.

17 Ingurumena

Probak ia osorik gune naturaletatik eta jabeek utzitako lur pribatuetatik igarotzen dira. Derrigorrezkoa da:

- Hondakin guztiak anoa-guneetako edukiontzietaraino eramatea, adierazitakoaren arabera bereizita.
- Markatutako ibilbidetik ez irtetea, higadura saihesteko.
- Landaredia, fauna, abereak, itxiturak eta baserrietarako bideak errespetatzea.

Arau hau ez betetzeak deskalifikazioa dakar. Parte-hartzaile baten laguntzaileek jokabide bera izanez gero, parte-hartzailea bera zigortu ahal izango da.

18 Baimen informatua, arriskuak eta erantzukizuna

18.1 Baimen informatua. Izena emate hutsarekin, parte-hartzaileak bere baimen informatua ematen du, inolako agiririk sinatu beharrik gabe, eta honako hau adierazten du:

- Probaren gogortasuna eta mendi lasterketaren berezko arriskuak ezagutzen dituela: lur irregularra eta malda handikoa, erorikoak, nekea, deshidratazioa, hotza, beroa, lainoa eta eguraldi-aldaketa bortitzak.
- Egoera fisiko eta psikologiko egokian dagoela, eta ez duela parte hartzea desaholkatzen duen gaitzik.
- Borondatez parte hartzen duela, eta jardueraren berezko arriskuak onartzen dituela.
- Araudi hau eta Antolakuntzaren argibideak betetzeko konpromisoa hartzen duela.

18.2 Aseguruak. Antolakuntzak derrigorrezko kirol-asegurua eta erantzukizun zibileko asegurua kontratatzen ditu parte-hartzaile eta boluntario guztientzat, indarreko araudiaren arabera. Parte-hartzaileek baimena ematen dute haien datuak poliza horiek sinatzeko erabiltzeko.

18.3 Arriskuen onarpena. Mendi lasterketa arriskuzko kirol-jarduera da. Haren berezko arriskuak, hala nola erorikoak, bihurdurak, kolpeak, hipotermia, bero-kolpea, ziztadak edo eguraldi-aldaketa bortitzak, ezin dira ezabatu, nahiz eta Antolakuntzak arreta handienaz jardun. Izena ematean, parte-hartzaileak adierazten du arrisku horiek ezagutzen dituela eta askatasunez eta borondatez onartzen dituela. Hidratazioa, elikadura eta esfortzuaren kudeaketa parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizuna dira; deshidratazioa, nekea eta horietatik eratorritako beste nahasmenduak ez dira istripu gisa hartzen.

18.4 Erantzukizuna. Antolakuntzak halako proba baterako arrazoizko segurtasun-neurriak hartzen ditu: ibilbide berrikusia eta seinaleztatua, osasun- eta erreskate-dispositiboa, kontrolak, ordu-mugak, ibilbide alternatiboa eta aseguruak. Antolakuntza ez da izango honako hauetatik eratorritako kalteen erantzule:

- Jardueraren berezko arriskuak.
- Araudi hau edo Antolakuntzaren, komisarioen edo osasun-langileen argibideak ez betetzea.
- Parte-hartzailearen beraren edo Antolakuntzaz kanpoko hirugarrenen errua edo zabarkeria.
- Parte-hartzailearen osasun-egoera edo prestakuntza desegokia.
- Markatutako ibilbidetik irtetea, edo erretiratua izan ondoren jarraitzea.
- Ezinbesteko kasuak.

Parte-hartzaileak borondatez eta bere erantzukizunpean hartzen du parte proban, eta Antolakuntza, laguntzaileak eta babesleak salbuesten ditu Antolakuntzaren jokabide arduragabe batetik eratorritakoa ez den edozein erantzukizunetatik. Parte-hartzaile bakoitza da bere buruari, beste parte-hartzaileei edo hirugarrenei eragiten dizkien kalteen erantzule. Artikulu honek ez du mugatzen legeak baztertzen uzten ez duen erantzukizuna.

18.5 Objektu pertsonalak. Antolakuntza ez da objektu pertsonalen galeraren, lapurretaren edo hondatzearen erantzule, ezta arropa-zaintzan utzitakoena edo KBren gailurrera eramandako poltsetakoena ere; haien edukia ez da berrikusten. Balio handiko objekturik ez sartzea gomendatzen da. Ahaztutako objektuak proba ondorengo 15 egunetan gordeko dira.

19 Irudia, datu pertsonalak eta azken xedapenak

19.1 Irudi-eskubideak. 1/1982 Lege Organikoaren arabera, izena emateak baimena ematen die Antolakuntzari eta hark baimentzen dituen erakundeei parte-hartzailearen irudia eta izena proban zehar hartu, erreproduzitu eta zabaltzeko, kontraprestaziorik gabe, ekitaldiaren informazio- eta sustapen-helburuekin eta edozein euskarritan. Proben irudia ustiatzen duen edozein ikus-entzunezko edo publizitate-proiektuk Antolakuntzaren aldez aurreko baimena beharko du.

19.2 Datuen babesa. Tratamenduaren arduraduna Lagun Onak Mendi Bazkuna da. Datuak (EB) 2016/679 Erregelamenduaren (DBEO) eta 3/2018 Lege Organikoaren arabera tratatzen dira, helburu hauekin: zozketa eta izen-ematea kudeatzea, segurtasuna eta osasun-laguntza, aseguruak kontratatzea eta sailkapenak eta igarotze-denborak argitaratzea. Datuak helburu horietarako eta legezko betebeharrak betetzeko behar den denboran gordeko dira. Ez zaizkie hirugarrenei lagako helburu komertzialekin, berariazko baimenik gabe. Parte-hartzaileak sarbide-, zuzentze-, ezabatze-, aurka egiteko, mugatze- eta eramangarritasun-eskubideak erabil ditzake info@domusateknik40mlk.com helbidean, eta erreklamazioa aurkez dezake Datuak Babesteko Espainiako Agentzian.

19.3 Aldaketak. Antolakuntzak araudi hau aldatu ahal izango du. Aldaketak webgunean argitaratuko dira, halakotzat adierazita eta bertsioa eta data zehaztuta.

19.4 Hizkuntzak. Araudi hau euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez argitaratzen da. Desadostasunik badago, gaztelaniazko bertsioa nagusituko da.

19.5 Harremanetarako. Izen-emateak: izenemateak@domusateknik40mlk.com · Informazio orokorra: info@domusateknik40mlk.com

DOMUSA
TEKNIK
MENDI LASTERKETA

40
MLK
65km

www.domusateknik40mlk.com

Izen-emateak · izenemateak@domusateknik40mlk.com

Informazioa · info@domusateknik40mlk.com